MUNITIBAR – AULESTI – GIZABURUAGA – AMOROTO – MENDEXA
LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA
Elexaldea - Eguen, 3 – 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 684 29 82 Faxa: 94 684 44 21 www.leaibarra.com

PROZEDURA IREKI BIDEZ ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu hauek oinarri hartuz gauzatuko den kontratuaren xedea izango da **Lea Ibarreko Mankomunazgoko esku-hartze psikosozial zerbitzua** kontratatzea, kontratu izaera izango duen espedientean jasotako dokumentazio teknikoarekin bat eginez.

Xede hori CPV kode honi dagokio: 85121270-6 zerbitzu psikiatriko eta psikologikoak.

2. EPEA

Zerbitzua egikaritzeko epea BI (2) urtekoa izango da, zerbitzua eraginkortasunez martxan jartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. BI (2) luzapen egin ahal izango dira eta bakoitzak gehienez ere urtebete (1) iraun ahal izango du, eta hala, kontratuaren eta luzapenen gehienezko epea LAU (4) urtekoa izango da.

Enpresa adjudikaziodunak luzapenak derrigorrez gauzatu beharko ditu Lea Ibarreko Mankomunazgoak hala erabakitzen badu eta horren berri ematen baldin badio kontratua edo dagokion luzapena bukatu baino 2 hilabete aurretik. Edonola ere, hasierako kontratua eta horren luzapenak bukatzean (gehienez ere 4 urteko epean), eta interes publikoko arrazoiak direla-eta (29.4. artikulua), enpresa adjudikaziodunak kontratuarekin jarraitu beharko du enpresa berriak zerbitzuaren kargua hartu arte, eta jarraipen horrek ez du inolaz ere bederatzi (9) hilabeteko epea gaindituko.

3. PREZIOA

Kontratuaren prezioa 45€ + dagokion BEZ izango da (gainerako gastuak barne) emandako benetako ordu bakoitzeko; lizitatzaileek kopuru hori hobetu ahal izango dute. BEZa 7/1994 Foru Araua, azaroaren 9koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera aplikatuko da.

Zerbitzua, asteko zapi (7) orduri dagokio (normalean astean egun batean), eta kopuru hori kontuan hartu beharko da, orientazio gisa, lanaren bolumena kalkulatzeko. Urtean 46-48 aste aurreikusten dira, gehienez, beti ere, 48 aste izango direlarik. Hau da, gehienez ere 336 ordu

Kontratuaren urteko aurrekontua 15.120,00 izango da.

2017ko SPKLren 101.1 artikuluak aurreikusitako ondorioetarako, kontratuari emandako balio zenbatetsia 60.480,00 euro da (BEZ gabe), hau da, bi anualitate eta balizko bi luzapen, urte batekoa bakoitza.

2017ko SPKL 100 artikuluan xedatutakoaren arabera, Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 30.240,00 da, bere kalkuluan kontutan hartuz gaur eguneko araudia. Modu orientagarrian kostu zuzenak %80 litzateke (soldatak eta aseguru sozialak), %20 gastu orokorrak eta irabaziak.

4. FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko indarrean dagoen urtearen kargurako finantzazioa aurreikusita dago (230.22707). Era berean, aurrekontu alorrean eskumenak dituen organoak beharrezko kredituak gordeko ditu eraginpekoak diren etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren prezioa hilean behin ordainduko da dagokion faktura elektronikoa Lea Ibarreko Mankomunazgoan aurkeztu ondoren. Faktura Mankomunazgoko Gizarte Zerbitzuetako arduradunari zuzenduta egongo da, eta hark, faktura aurkeztu eta 30 eguneko epean onetsi egingo du. Ordainketa banku transferentzia bidez gauzatuko da faktura onetsi eta 30 egun ondoren, erakundearen presidentetzaren oniritziarekin.

6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetako prezioak ezingo dira berrikusi.

7. BERMEAK

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunak, hartutako zereginak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eratu beharko du adjudikazio kopuruaren % 5eko zenbatekoan, BEZa kanpo.

Berme hori eratzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, 21. klausulan adierazitako eskaria jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako bitartekoen bidez eratu ahal izango da. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabili ahal izango dira. Enpresa lizitatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiak direla-eta betekizun hori betetzen ez baldin bada, Lea Artibai Amankomunazgoak ez du adjudikazioa enpresa horren alde gauzatuko.

Berme osoa edo bermearen zati bat itzultzeko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL) xedatutakoa beteko da, berme epea bukatutakoan eta enpresa adjudikaziodunak kontratuko betebehar guztiak gauzatu ondoren.

8. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratuaren egikaritzea enpresa kontratistaren arrisku eta menturara izango da.

Mankomunazgoko egoitzan emango da eta kontratistak beharrezko gailu, material… guztia ekarriko beharko du. Hala ere, posible da batzuetan Mankomunazgoko beste udalerri batzuetan ere zerbitzua eman behar izana. Salbuespenez, kasuak hala eskatzen duenean, pertsonaren/familiaren ingurunean izango litzateke, hala nola etxean, beste sistema batzuekin (hezkuntzakoak, osasunekoak) moldatzen eta elkarreragiten dute inguruneetan, hau da, eragina dute haien eguneroko bizitzan eta garapen pertsonal eta sozialean.

Kontratua egikaritzen duenak ez du, inolaz ere, Mankomunazgoarekin inolako lan-harremanik finkatuko, ez unean-une, ez etorkizunean.

Kontratua plegu honetako klausulen arabera egikarituko da, eta hala badagokio espedientean jasotako zehaztapen teknikoak beteko dira eta Lea Ibarreko Mankomunazgoak gauzatuko ditu zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol lanak, idatziz eta ahoz egikarituko dituelarik eskumen horiek.

Enpresa kontratistari edo menpeko pertsonei egotz dakizkiokeen ekintza edo ez egiteen ondorioz kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen baldin bada Lea Ibarreko Mankomunazgoak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du kontratuaren egikaritze zuzena lortzeko edo egikaritze zuzena berrezartzeko.

KLAUSULA SOZIALAK, LAN ARLOKOAK ETA INGURUMENEKOAK

1.- Lan-klausulak

1.1.- Langile berriak sartzea: kontratua gauzatzeko langile berriak sartu behar direnean, enpresa esleipendunak lehentasunezkotzat jotako talderen batean dauden langabeen % 50 enplegatu beharko du gutxienez, betiere langile horiek lanpostua betetzeko eskatzen den lanbide-profila betetzen badute. Lea Artibaiko Behargintzak zehaztuko ditu urtero, aurreko urteko abenduaren 31n erregistratutako langabezia-tasen arabera.

Lehen aipatutako ehunekoa bete beharko da, bai enpresa esleipendunak kontratuaren iraupenerako egin beharreko kontratazio berrietan, bai behar dituen bajak eta ordezkapenak betetzeko.

Kontratua gauzatzearekin lotutako enplegu-eskaintzak kudeatzeko, enpresa esleipendunak Lea Artibaiko (Lanbideren zentro laguntzailea) lan-bitartekaritzako zerbitzuak erabili beharko ditu, eta hori ezinezkoa bada, Lanbideren berezko zerbitzuak erabiliko ditu.

1.2.- Desgaitasuna duten pertsonak: minusbaliatuen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatuz, enpresa esleipendunak 50 langile baino gehiago baditu, egiaztatu beharko du gutxienez plantillaren % 2ko desgaitasuna (% 33ko minusbaliotasun-ehunekoa edo handiagoa) duten pertsonen kopurua kontratatzeko betebeharra betetzen duela. Bestela, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan jasotako salbuespenezko neurri alternatiboren bat betetzen duela egiaztatu ahal izango du.

1.3.- Ez-betetzea

Aurreko lerrokadetan ezarritako betebeharrak kontratuak gauzatzeko baldintza berezi gisa ezarri beharko dira, eta horiek gauzatzeko esparruan egiaztatu beharko dira.

Kontratua ez betetzea kontratu-betebeharren arau-hauste oso larria izango da, eta kontratua suntsiaraztea edo kontratuaren aurrekontuaren % 3 eta % 10 arteko zenbatekoa duen zigorra ezartzea eragin dezake.

2.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak

Enpresa esleipendunak emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatuko du enplegua eskuratzean; sailkapena, sustapena, iraunkortasuna eta lanbide-prestakuntza; soldata-ordainsariak; lanaren kalitatea eta egonkortasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua. Genero-diskriminazioagatiko zehapen administratiborik eta/edo penalik ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitorpena erantsi beharko da.

Esleipendunaren lan-arriskuen eta lan-osasunaren planek genero-ikuspegia jaso beharko dute, eta problematikei eta premiei buruzko ezaugarriak jasoko dituzte, sexuaren arabera bereizita.

Era berean, esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabili beharko du ematen dituen dokumentuetan eta materialetan, eta berdintasun-balioak, rolen aniztasuna eta aniztasuna errespetatzen dituen irudia sustatu beharko du, bai eta erantzunkidetasunaren aldeko apustua ere.

Enpresa esleipendunak lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ezarri beharko ditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

Esleipendunak 250 langile baino gehiago baditu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako Berdintasun Planaren diseinua eta aplikazioa egiaztatu beharko ditu.

3.- Hizkuntza-klausulak

Kontratatu beharreko zerbitzua emateak harreman zuzena dakar herritarrekin.

Enpresa esleipendunak zerbitzua eman beharko du, betiere herritarrek arreta euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea errespetatuz, lehenengoari lehentasuna emanez bigarrenaren aurretik, erabilerari, tipografiari eta idatzizko dokumentazioan hizkuntza aukeratzeari dagokienez, etab.

Langile berriak sartzea: kontratua gauzatzeko langile berriak sartu behar diren kontratuetan, kontratatutako langile berriek 3. HE edo baliokidea dutela egiaztatu beharko dute.

Esleipendunak bermatu beharko du enpresaren eta udal-administrazioaren eta/edo herritarren arteko komunikazio, dokumentazio, azterlan, kartel eta abar guztiak euskaraz eta/edo gaztelaniaz aurkezten direla, eta Amankomunazgoak euskarari gaztelaniaren gainean ematen dizkion lehentasun-parametro berak kontuan hartuko ditu (letra-mota, tamaina, posizioa...).

Enpresa esleipendunak euskara erabili beharko du kontratuaren xedeari lotutako esku-hartze publikoetan.

4.- Ingurumen-klausulak

Enpresa esleipendunak zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, ingurumenaren aurkako atentatuak egiteagatik zigor administratiborik eta/edo penalik ez dagoela egiaztatzen duena. Enpresa esleipendunak zerbitzua emateko erabilitako edo eskuratutako materialek eta/edo produktuek, bai eta zerbitzua gauzatzeko erabilitako metodo eta prozedurek ere, ingurumena eta osasun publikoa errespetatu beharko dituzte.

9. ENPRESA KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK

Enpresa kontratistak derrigorrez bete beharko ditu lan alorrean, Gizarte Segurantza alorrean eta laneko segurtasun eta higiene alorrean indarrean dauden legezko xedapenak, eta Lea Ibarreko Mankomunazgoak ez du horien gaineko erantzukizunik izango.

10. KONTRATUA EGIKARITZEAN HIRUGARRENEI GAUZATUTAKO KALTEENGATIKO ENPRESA KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.

Kontratu egikaritzearen eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren ardura enpresa kontratistarena izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoarekin bat eginez.

11. KONTRATUAN ALDAKETAK EGITEA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiak direla- eta indarrean dagoen legerian ezarritako inguruabarretan, baldintzetan eta horretan xedatutako irismen eta mugak errespetatuz, SPKLaren 203 eta 205 artikuluetan jasota dagoen lez, hain zuen ere.

12. PRESTAZIOA JASOTZEA ETA BERME ALDIA

Kontratuaren xedea bukatu eta gehienez ere 30 eguneko epean kontratuaren jasotze ekimen formala eta positiboa gauzatuko da Lea Ibarreko Mankomunazgoko bulegoetan.

Era berean, jasotze formala egin ondoren urtebeteko epea ezarriko da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako ondorioen berme gisa.

Berme aldi horretan enpresa kontratistak izango du egindako lan edo prestazioetan egon daitezkeen akats edo huts egiteen gaineko ardura.

Epe hori igarotakoan Lea Ibarreko Mankomunazgoak eragozpenik zehaztu ez baldin badu, enpresa kontratistaren erantzukizuna bukatu egingo da.

13. KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEARREN

A. ENPRESA KONTRATISTAK JASOKO DITUEN ZEHAPENAK

Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratuaren egikaritze epe osoan edo epe partzialetan atzerapenak egon baldin badira, Lea Ibarreko Mankomunazgoak kontratua suntsiarazi ahal izango du, bermea galdutzat jo ahal izango du edo zehapenak ezarri ahal izango ditu, kontratuaren 1.000 euroko egunean 0,20 euroko proportzioa mantenduz.

Atzerapen zehapenak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplora iristen direnean kontratazio organoak kontratua suntsiarazteko edo zehapen berriak jarriz kontratua egikaritzen jarraitzeko eskumena izango du.

B. PRESTAZIOAK PARTZIALKI EZ BETETZEA

Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratuan definitutako prestazioen egikaritze partziala bete ez baldin bada, Lea Ibarreko Mankomunazgoak kontratua suntsiarazi ahal izango du edo kontratuaren guztizko prezioaren % 10en baliokidea den zehapena ezarri ahal izango du.

C. BETETZE AKASTUNA

Prestazioa akatsekin egikaritzen baldin bada Lea Ibarreko Mankomunazgoak kontratuaren aurrekontuaren % 10en baliokidea den zehapena ezarri ahal izango du.

D. EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA

8. klausulan ezarritako gizarte baldintzak betetzen ez baldin badira Lea Ibarreko Mankomunazgoak kontratuaren aurrekontuaren % 10en baliokidea den zehapena ezarri ahal izango du.

E. GAITASUN KONPROMISOAK EZ BETETZEA

Enpresa kontratistak eskaintzan adierazitako bitarteko materialak edo giza baliabideak atxikitzeko betebeharra gauzatzen ez baldin badu, 20. klausulan xedatutakoa betez Lea Ibarreko Mankomunazgoak kontratuaren aurrekontuaren % 10en baliokidea den zehapena ezarri ahal izango du.

14. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoak.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Lea Ibarreko Mankomunazgoaren eskumenak izango dira kontratua interpretatzea, kontratuaren betetzeari buruz egon daitezkeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla eta kontratua aldatzea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritako baldintzak eta ondorioak betez.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura ireki bidez gauzatuko da.

Kontratuaren adjudikaziorako eta haztapenerako oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

- Kontratuaren prezioa: 60 puntu.
- Proposamen teknikoa: 40 puntu.

Aipatutako irizpideen artean proposamen teknikoa balio judizioaren menpe egongo da eta balioztapen automatikoa egin aurretik baloratuko da honako banakatzearekin. Hala, gutxienez atal horri dagokien puntuen %50eko gutxinezko puntuazioa lortzen ez dituzten enpresa

lizitatzaileak kanpoan geratuko dira eta ez dira onartuko 20 orrialde (2 aldeetan inprimatuta) gainditzen dituzten eskaintzak. Proposamen teknikoa euskaraz aurkeztu beharko da eta aukeran egongo da EAEko bi hizkuntza ofizialen aurkeztea:

- Gizarte eta esku-hartze psikosozial programa umeekin, nerabe/gazteekin eta familiekin, gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden nagusiekin, menpekotasuna izateko arriskuan daudenekin (adingabeak edo nagusiak), indarkeriaren biktima direnekin eta, esku-hartze alorrak eta programak, helburuak, metodologia eta ebaluazio sistemak deskribatuz.

  Esku-hartze programaren kalitatea, eraginkortasuna eta egokitasuna baloratuko dira, baita Mankomunazgoarentzat eta Mankomunazgoa osatzen duten udalerrientzat egokituta egotea ere: 15 puntura arte.

- Zerbitzuaren egitura eta antolamendua.
  - Atxikitako giza baliabideak, erantzukizunak eta funtzioak.
  - Lanaren antolamendua. Urteko egutegia eta asteroko lanaldia goizez eta arratsaldez izatea baloratuko da. Langilearen funtzioak, jarduerak eta zereginak esku- hartze alor eta udalerri bakoitzean.
  - Barneko eta kanpoko koordinazio sistemak, eta bereziki gizarte zerbitzuekikoak.

  Zerbitzu antolamenduaren kalitatea, eraginkortasuna eta egokitasuna baloratuko dira, baita Mankomunazgoarentzat eta Mankomunazgoa osatzen duten udalerrientzat egokituta egotea ere: 10 puntura arte.

- Eskaini beharreko zerbitzuaren kalitatearekin lotutako bestelako alderdiak:
  - Langileen prestakuntza plana: zerbitzuari atxikitako langileen prestakuntzari eta birziklapenari lotutako ekintzak: 10 puntura arte.
  - Bestelako berrikuspen baliabideak eta zerbitzuari atxikitako langileen lanari laguntzeko baliabideak: 5 puntura arte.

Balioztapen automatikoko irizpideak honako hauek dira eta formula hauek aplikatuz baloratuko dira:

KONTRATUAREN PREZIOA

$$\frac{\text{Proposamen ekonomiko baxuena}}{\text{Baloratu beharreko proposamena}} \times 60 = \text{Balorazioa}$$

Beherapen anormaleko eskaintza egin dela ulertuko da aurkeztutako eskaintza baliozkotzat jotzen diren eskaintza ekonomikoen batez bestekoaren %10 baino gehiagoko beherapena egiten dionean.

17. KONTRATAZIO MAHAIA

Honakoek osatuko dute kontratazio mahaia:

- Presidentea: Mankomunazgoko Presidentea
- Mahaikideak: Mankomunazgoko funtzionario bat eta Mankomunazgoko lan-kontratudun bat.
- Kontratazio mahaiaren idazkaria: Mankomunazgoko funtzionario bat.

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona naturalek eta juridikoek, eta gainera, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatu beharko dituzte eta ez dira egon beharko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritako kontratatzeko debekuen barne. Kaudimena eta gaitasuna 20. klausularen e) hizkian ezarritako bitartekoen bidez egiaztatu eta ebaluatuko dira.

Era berean, egiaztaketa norberak edo baimendutako ordezkoak gauzatu ahal izango du, horretarako emandako eskumenak egikarituz. Kideren batek pertsona juridiko bat ordezkatuz jarduten baldin badu, horretarako eskumenak dituela egiaztatu beharko du dokumentuen bidez. Edonola ere, ordezkariak ez du kontratatzeko gaitasunik izango.

Enpresariek, era berean, jarduera gauzatzeko edo kontratu honen xedea betetzeko enpresa gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute.

19. ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lizitazio hau kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dagoena.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, 20 egun naturaleko epearen baitan, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta adierazitako epealdiaren azken eguneko 14:00etara arte.

SPKLaren kontratatzailearen profilera helbide honen bidez sartu ahal izango da: www.leaibarra.eus. Leku horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo agiri osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino zortzi egun lehenago gutxienez egin bada eskabidea.

Bat etorriz SPKLaren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, pleguei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, edo eskaintzak lekuan bertan egindako bisita baten ostean edo pleguari erantsitako dokumentazioa in situ kontsultatu ostean soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, ukitutako hautagaiek eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bide elektronikoetatik aurkezten ez diren eskaintzak.

Eskaintza bateko dokumentuetako edozein ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko da lizitatzaileak formatu digitalean aurkeztea akasdun fitxategian txertatutako dokumentua, betiere

24 ordu igaro baino lehen. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezingo du inolako aldaketarik jasan eskaintzan sartutako jatorrizkoari dagokionez. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu behar dira, eta horiek aurkezteak dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du eskaintza bat baino gehiago egin, aldagaiak onartzea albo batera utzi gabe. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa elkartean antolatuta proposamenik sinatu bakarka sinatu badu, ez eta behin-behineko elkarte batean baino gehiagotan ageri ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak sinatutako proposamen bat ere ez da onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta adjudikazioa iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLaren xedapenek diotena baztertu gabe, hautagai eta lizitatzaile horiek eskaintzarekin igorritako informazioa isilpekoa dela adierazi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Mankomunazgoak ezin izango du informazio hau zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

20. ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte. Horiek itxita egon beharko dira, eta lizitatzaileak edo ordezkatzen duen pertsonak sinatu beharko ditu, bertan jasotako dokumentazioaren nortasuna eta osotasuna bermatzen duen sinadura elektroniko aitortuaren bidez. Barrualdean, dituen dokumentuen zenbaki-zerrenda jaso beharko du

“A” gutun-azal elektronikoaren azpititulua “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izango da, eta honako agiriak jasoko dira bertan:

1.- Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako helbide elektroniko bat aukeratzea, bat etorriz SPKLaren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Helbide horretan egingo dira kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

2.- Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta baldintza-agiri honetan kontratua eskuratzeko ezarritako baldintzak ere. Adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formulariora egokituko da.

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozedura behar bezala garatzen dela bermatze aldera, kontratuaren adjudikaziodun izateko agiri honetan ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak aurkezteko eskatu ahalko die lizitatzaileei, betiere, adjudikazio egin aurretik.

Enpresen aldi baterako elkarte batean (ABEE) lehiatzen diren operadore ekonomikoen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, eta horietako bakoitzak, izenak, inguruabarrak eta ABEEan izango duten partaidetza zehaztu

beharko dituzte.

SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Loteetan banatzen bada, kaudimen-baldintza desberdinekin, lote bakoitzeko edo kaudimen-eskakizun berak aplikagarri daukan lote-talde bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da Legean eta agiri honetan eskaturiko nahitaezko nortasun-, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko une erabakigarria.

Adierazitako bitartekoei dagokienez, kontratu honetarako enpresek izan beharreko gutxieneko baldintzak hauek izango dira:

- Kaudimen ekonomikoa: Enpresek egiaztatu egin beharko dute azken 3 urteetako batean emandako esku-hartze psikosozialeko zerbitzuen urteko fakturazio bolumena 22.680,00 eurokoa izan dela.
- Gaitasun teknikoa: Enpresek egiaztatu egin beharko dute azken 3 urteetan egindako psikosozial arloko lanak.
- Gaitasun profesionala: Zerbitzuan lan egingo duen pertsonak derrigorrez izan beharko du psikologiako graduatua edo lizentziatura, eta EAEko bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko eta agiriak sortzeko gaitasuna izan beharko du. Euskara maila frogatzeko EGA titulua izan beharko du edo baliokidea. Zerbitzua zuzenean ematen duen pertsonak Psikologia Elkargoko kide izan beharko du. Ekarri beharko dute ere sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren zigor-aurrekarien ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatutako Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluaren arabera.

Gaitasuna egiaztatzeko gainera enpresa lizitatzaileek eskaintzetan zehaztutako bitarteko materialak edo giza baliabideak erabiliko dira, eta horiek kontratuari atxikitzea kontratuaren oinarrizko betebeharra izango da, eta beraz, SPKLren 76 artikuluan aurreikusitakoa betez, betebehar horiek gauzatzen ez baldin badira kontratua suntsiarazi ahal izango da 211.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

“B” gutun-azal elektronikoren azpititulua “BALIO JUDIZIOAREN MENPE DAUDEN BALORAZIO IRIZPIDEAK” izango da eta balio judizioaren menpe dauden irizpideei dagozkien agiriak jasoko dira bertan, plegu honetako 16. klausulan adierazitakoak.

“C” gutun-azal elektronikoaren azpititulua “ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEAK” izango da eta honako agiriak jasoko dira bertan:

a) I. eranskinaren eredua betez idatzitako eskaintza ekonomikoa (prezio unitarioa).

Gutun-azal honetan ez dira inola ere sartu behar memoria teknikoa, lan-programa edo adjudikazio-irizpideei dagozkien eta balio-judizio baten arabera baloratu behar diren eta "B" gutun-azalean sartu behar diren bestelako datuak.

"C" gutun-azalean datu horietakoren bat sartzen bada, ez dira dokumentu horiek baloratuko; beraz, automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio adjudikatuko.

OHARRA: Ez ahaztu eskaintzak modu digitalean sinatzeaz eta gutun-azalak enkriptatzeaz.

Eskatutako dokumentazioaren jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu ahal izango dira, betiere kopiak behar bezala konpultsatuta edo administrazioak edo notarioak egiaztatuta baldin badaude.

21. GUTUN-AZALAK IREKITZEA, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN TRATAERA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren honako jarduketak gauzatuko dira:

1. «A» GUTUN-AZALAREN IREKIERA

Mahaiak «A» gutun-azala elektronikoki irekiko du eta gutun-azal horretan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLaren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzen ditzaten.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak Mankomunazgoko kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2. «B» GUTUN-AZALAREN IREKIERA

«B» gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-irizpenen mendean dauden irizpideak ulertzekoa, kontratatzailean profilean argitaratzen den toki, egun eta orduan irekiko da, gutxienez, 48 ordu lehenago. Xede horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo hutsak zuzendu behar badira, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du, 817/2009 Errege Dekretuaren, maiatzaren 8koaren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki onartzen duenaren, 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu jasotako eskaintzarik onenari buruz, eta kontratazio-organoari bere adjudikazio-proposamena helaraziko dio.

3. «C» GUTUN-AZALAREN IREKIERA

"B" gutun-azala ireki eta bertako dokumentazioa baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak "C" gutun-azala irekiko du, Mankomunazgoaren kontratugilearen profilean adieraziko den egunean eta orduan. Ondorio horietarako, dokumentazio horretako akatsak edo omisioak zuzendu behar izanez gero, Mahaiak, gehienez ere, sei egun balioduneko epea emango du zuzenketa egiteko, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz.

Egintza horretan, eskaintza bakoitzean balio-irizpenen mendeko irizpideei adjudikatutako balorazioa emango da jakitera.

4. ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu (puntu gehien dituenetik puntu gutxien dituenera) eta kontratua adjudikatzeko proposamena hori burutu behar duen kontratazio organoari aurkeztuko dio.

Ez ohiko moduan baxutzat jo daitezkeen proposamenak identifikatzen direnean, eskaintzen izaera neurrigabearen edo ohiz kanpokoaren adierazpenak aurretik eskaintza horiek aurkeztu

dituen/dituzten lizitatzailearen edo, hala badagokio, lizitatzaileen entzunaldia eta dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa behar ditu, SPKLaren 149. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Kasu horretan, kontratazio organoak, lizitatzaileak egindako justifikazioa eta eskatutako txostenak ikusirik, xedatuko du adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izango dela, Administrazioak ase ahal izango duela balioztatzen dena.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezin dela bete ohiz kanpoko eta neurrigabeko balioak sartzearen ondorioz, sailkapenetik baztertuko du eta adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izan dadila xedatuko du, sailkatutako ordenarekin bat etorriz.

Aipatutako hori guztia espedientean jasoko da, nahitaez zabaldu beharko diren kasuan kasuko aktetan.

22. ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

1.- Mankomunazgoak proposamen onuragarriena aurkezten duen lizitatzaileari kontratua behin-behinean adjudikatzea erabakiko du, aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz.

2.- Hamar egun balioduneko epean, behin-behineko adjudikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, behin-behineko adjudikaziodunak jarraian adierazten diren jarduketak egin beharko ditu edo agiriak aurkeztu:

a) Parte hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten ordezkaritzan jardun bada, notario-ahalordea, mankomunazgo honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratu edo aldatzeko eskritura, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroan behar den moduan inskribatutakoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu ahal zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egotea eskatu ahal denean. Hori beharrezkoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

Espainiakoak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresaburuen kasuan, egiaztatu beharko dute dagokion erregistroan izena emanda dutela, beren estatuaren legeriarekin bat eginez. Bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu ahal izango dute, aplikagarriak diren erkidegoko xedapenei jarraikiz.

Gainontzeko enpresaburu atzerritarrek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute Espainiak dagokion estatuan (enpresaren helbidea zein lurralde eremutan dagoen aintzat hartuta) daukan Diplomazia Misio Iraunkorraren edo kontsuletxearen txostenaren bitartez.

Kontratuaren JEZaren epigrafe egokian alta emanda egotearen gaineko egiaztagiria, eta alta aurkeztuta uneko ekitaldia bada, edo JEZaren azken ordainagiria gainerako kasu guztietan. Kasu bietan, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko ardurapeko adierazpena behar da.

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren ziurtagiriak.

Horretaz gain, kontratua egingo duten langile arduradunen izenak eta prestakuntza profesionala zehaztuko dituzte. Horri dagokionez, adierazten da adjudikaziodunak ezingo dituela pertsona

horiek ordezkatu administrazio honen aldez aurreko baimenik gabe. Inguruabar hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honetan bertan aipatutako erregistro ofizialen baten ziurtagiria edo erkidegoko ziurtagiria aurkeztu.

e) Lizitazio baten hainbat enpresek Aldi Baterako Enpresa Elkartean eratuta parte hartzen badute, elkartea osatzen duen bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna daukala, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, proposamenean ABEEren kide bakoitzak egingo duen xedearen zatia azalduko da, guztien kaudimenari buruzko baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Enpresa atzerritarrek espainiar epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren pean jartzen direlako adierazpena egin behar dute, zuzenean edo zeharka kontratuak ekar litzakeen gorabehera guztietarako. Lizitatzaileak atzerritar jurisdikzio foruari (baleuka) uko egingo dio.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzea edo kontratazio organoari modu zuzenean lortzeko baimena ematea.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

i) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztea, gutxienez 300.000 eurokoa.

a) (NAN izan ezik), b) eta d) letretan aipatutako egoerak (kontratua gauzatzez arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala zehaztea izan ezik) Euskadiko Lizitzatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko, Estatutako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriaren bidez edo Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 96. eta 97. artikuluetan xedatutakoarekin bat sailkapenaren ziurtagiri komunitarioaren bitartez egiazta daitezke. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak modu elektronikoan igorri ahalko dira.

Eskaera aipatutako epean behar bezala beteko ez balitz, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da eta, kasu horretan, hurrengo lizitatzaileari —eskaintzak sailkatu diren ordenari jarraikiz— agiri berberak eskatuko zaizkio.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ostean aurkeztutako dokumentazioak zuzen daitezkeen akatsak baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko. Bada, hori zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari, eta Mankomunazgoaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

Adierazitako jarduerak egin ondoren, behin-behineko adjudikazioa behin betiko bihurtuko da, aurrez aurreikusitako adjudikazioaren ondorengo bost egun balioduneko epean.

Adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko agiria sinatu beharko du, Mankomunazgoak adierazitako egunean. Nahikoa izango da administrazio-dokumentuan formalizatzea. Adjudikaziodunak eskritura publikoan formalizatu nahi badu, gastuak bere kontukoak izango dira, eta mankomunazgo honi lehenengo kopia, kopia baimendua eta eskrituraren kopia soil bat eman beharko dizkio, egiletsi eta 15 eguneko epean.

Kontratistari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, ezin izango balitz kontratua legezko egin, Mankomunazgoak kontratua suntsiaraztea erabaki lezake. Erabaki hori hartu aurretik, ordea, entzunaldia emango zaio interesdunari, kalteen kalte ordainarekin.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

23. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hauetan oinarrituz gauzatuko den kontratua administrazio kontratua izango da eta beraz, plegu hauen arabera eta gainerako dokumentazio teknikoaren arabera arautuko da. Aurreikusita ez dagoen guztirako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa beteko da, eta hala badagokio administrazio publikoekin kontratatzeko gainerako arauak ere beteko dira.

Administrazio Klausula Berezien Plegu hauen eta espedienteari lotutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak baldin badaude, plegu hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

24. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontuan hartuz kontratazio honetarako datu pertsonalak erabili behar direla, kontratistak datu pertsonalak babesteko alorrean indarrean dagoen legerian zehaztutako betebeharrak bete beharko ditu.

25. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

Kontratu honetan sortu ahal izango diren kontu eztabaidagarriak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta erabaki horiekin bukatu egingo da administrazio bidea eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, albo batera utzi gabe hala badagokio errekurtso berezia jarri behar izatea kontratazio alorrean SKPLen araututakoa betez edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututakoak betez.

Gizaburuaga, 2022ko urtarrila.

I. ERANSKINA. LIZITATZAILEEN ESKAINTZEK BETE BEHARREKO ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

.....jauna k/andreak, ...helbidea duenak, ...PK, ... NAN zenbakidunak, ... telefono zenbakidunak,

..... helbide elektronikoa duenak,

gaitasun juridikoa eta jardutekoa dituelarik, norbere izenean edo.....

ordezkatuz, egoitza.....

helbidean duena,

.....KP, ...telefono zenbakiduna, eta

..... NAN edo IFK zenbakia duena (pertsona fisikoa edo juridikoa denaren arabera),

.....erakundeak

.....kontrata tzeko deitutako prozedura irekiaren berri izanik,

.....hauxe adierazi dut:

1.) Kontratua egikarituko dudala .....euro/orduko, gehi BEZari dagozkion . . . .

, prezioaren barne daudelarik kontzeptu guztiak, besteak beste fiskaltza alor guztietako zergak, gastuak, tasak eta arielak, baita kontratistaren hobari industriala ere.

2.) Ezagutzen dut Baldintza Teknikoen Plegua, Administrazio Klausula Berezien Plegua eta kontratu hau arautzen duen gainerako dokumentazioa, eta horiek guztiz onesten ditut eta beteko ditut.

3.) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araubidean jasotako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu irekiera, instalakuntza eta funtzionamenduari dagokionez.

Gizaburuagan, 2022eko ……n …….n.

Sinadura

MUNITIBAR – AULESTI – GIZABURUAGA – AMOROTO – MENDEXA
LEA IBARREKO UDAL MANKOMUNAZGOA
Elexaldea - Eguen, 3 – 48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 684 29 82 Faxa: 94 684 44 21 www.leaibarra.com

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la contratación del **servicio de intervención psicosocial de la Mancomunidad de Lea Ibarra** de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.

Dicho objeto corresponde al siguiente código CPV: 85121270-6 Servicios Psiquiátricos y Psicológicos.

2. PLAZO

El plazo total de ejecución del servicio será de DOS (2) años contados desde la fecha del inicio efectivo del servicio. Se podrán realizar DOS (2) prórrogas, con un máximo de duración cada una de ellas de un (1) año, siendo la duración total máxima del contrato y sus prórrogas de CUATRO (4) años.

Las prórrogas serán obligatorias para la empresa adjudicataria siempre que la Mancomunidad de Lea Ibarra las acuerde con una antelación mínima de 2 meses a la finalización del contrato o correspondiente prórroga. En todo caso, a la finalización del contrato inicial y sus correspondientes prórrogas, (máximo 4 años) por razones de interés público (art. 29.4 LCSP) la empresa adjudicataria tendrá la obligación de continuar con el contrato hasta que la nueva empresa se haga cargo del servicio, sin que dicha continuación pueda exceder en ningún caso de nueve (9) meses.

3. PRECIO

El precio del contrato es de 45 € + el correspondiente IVA (incluyendo gastos adicionales) por cada hora prestada; el precio podrá ser mejorado por las empresas licitadoras. El IVA se aplicará según lo dispuesto en el artículo 20 de la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

El servicio a prestar abarca siete (7) horas semanales (normalmente una vez a la semana), cantidad que podrá ser tomada a efectos orientativos para calcular el volumen de trabajo. Anualmente se estima que el servicio se dará en 46-48 semanas, siendo como máximo 48 semanas. Esto es, como máximo 336 horas anuales.

El presupuesto anual del contrato será de 15.120,00 euros.

A efectos de lo establecido en el artículo 101.1 LCSP, el valor estimado del contrato es de 60.480,00 euros (sin IVA), esto es, dos anualidades con dos posibles prórrogas, de un año cada una.

Vale a efectos de lo establecido en el artículo 100 LCSP; en su cálculo se ha tenido en

cuenta lo establecido por la actual normativa. El Presupuesto Base de Licitación es de 30.240,00. A modo orientativo el %80 corresponde a costes directos (salarios y seguridad social principalmente) y el restante 20% a gastos generales y beneficio industrial.

4. FINANCIACION

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso (230.22708). Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se reservará los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

5. FORMA DE PAGO

